

Ingurumen Politika

ITELAZPI Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoa da, irailaren 23ko 215/2003 Dekretuaren bidez sortua. Haren helburua telekomunikazio-sistemak eta -azpiegiturak kudeatzea, ezartzea, ustiatzea eta mantentzea da, irrati-eta telebista-seinaleak garraiatu eta hedatzeko, irrati-komunikaziorako, bideo-komunikaziorako, seinaleak transmititzeko eta konmutatzeko zerbitzuak eta beste edozein komunikazio-zerbitzu emateko.

Natur ingurunea edo ingurumena ezinbesteko babesleku da pertsonak, erakundeak eta proiektuak garatzeko. Beraz, hori iraunkortasunaren bidetik erabiltzea ezinbestekoa izango da bere biziraupenerako, biziraupen hori gaur egungo errealitatetik harantzago ulertuta, etorkizunera begira, etorkizuneko belaunaldiekiko konpromiso garbiaren bidetik.

Gure jardueraren ingurumen-eraginaz ohartuta, natur ingurunea babestea da ITELAZPIren balio korporatibo nagusietako bat. Aldi berean, enpresa-konpromiso ere bada, eta konpromiso hori Zuzendaritza Nagusiari nahiz langile guztiei dagokie. Interes taldeetan ere izango du islarik, eta horietan ere eragingo dugu, gure konpromisoa helaraziz.

ITELAZPIren ingurumen-politika ingurumen-kaltearen prebenitzera bideratutakoa da, modu aktiboan gainera, baita kaltetutakoa leheneratzera, eragina minimizatzen eta saihestezina den eragina gizaritari konpentsatzera bideratutakoa ere.

Natur ingurunearen babesaren inguruko konpromisoak unibertsala izan behar duenez, gure erakundeak babes horren isla soziala bilatu behar du, izaera publikoa duela eta eragile izan daitekeela kontuan izanik, betiere lortu nahi ditugun helburuak erdiesteko erabakitzaile izan daitekeen eragin biderkatzailea izateko helburuarekin. Horretarako, ITELAZPI bere ingurumen-politika gauzatzen bideratutako konpromisoak hartzen ari da.

Hemen adierazitako politikaren irmotasuna eta bikaintasuna lortzeko eta etengabe hobetzeko egindako ahalegina kontuan izanik —horiek baitira ITELAZPIren ezaugarri—, ingurumenarekin hartu dugun konpromisoa legezko betebeharrak betetzetik harantzago doa. Izan ere, ingurumena hobetzeko eta kutsadura prebenitzeko konpromiso sozialak hartu ditugu eta kudeaketarako tresna propioak garatu ditugu, gure ezaugarri berezietara egokituta eta egoki diren ikuskaritzak eginez sistemari. Hori guztia Garapen Jasangarriko Helburuetan (GJH) ezarritako ingurumen-jarraibideekin bat eginez, munduko itunari atxikiz babesten ditugunak.

2023ko iraila
Xabier Zubiaur Agirre
Zuzendari nagusia